

■ EUSKERAREN EGUNA '100 DA 100... 200 ORDU EUSKARAZ'

Eta zuretzat, nolako esperientzia izan da 200 orduz euskera hutsez bizitzea?

Euskeraren Eguna ospatuko dute gaur, 11:00etan hasita, Foru Plazan: zunba, esperientziak konpartitzea, patin jolasak...

ESPERIENTZIA berezia izango da, seguru, euskera hutsez bizitzeko saiakera egitea. Erronka horri heldu zioten, aurreko larunbatean, 500 astigartarrek baino gehiagok, 200 orduko esperientzia pertsonala bizitzeko asmoz. Gaur arte iraungo du *100 da 100... 200 ordu euskaraz* egitasmoak; Euskeraren Eguna arte, hain justu.

Ba egitasmoari itxiera eman eta Euskeraren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Foru Plazan elkartuko dira astigartarrak, goizeko 11:30etatik aurrera, hainbat ekintzaren bueltan.

Kontatu zure esperientzia!

Herritar askok hartu dute parte egitasmoan; zehazki, 447 hiztun, 47 hizkide eta 19 denda izan dira, izena eman dutenak. Eta 200 ordu horietan bizitako esperientzia, gainontzeko herritarrekin konpartitzea nahi dute. Horretarako, postua jarriko dute Foru Plazan bertan, eta bideoan grabatuko dituzte, parte hartu dutenen esperientziak: pasadizoak, bitxikeriak, ateratako ondorioak... Guztiak animatu dituzte, postura hurbildu eta beraien esperientzia pertsonala kontatzera.

Jolaserako eta ondo pasatzeko tartea ere soberan izango

EUSKERAREN EGUNA

GAUR, Foru Plazan

11:00-12:00, Zunba saioa.

12:00-13:30, *100 da 100... 200 ordu euskaraz* standa: izandako esperientziak bideoan grabatuko dira: pasadizoak, bitxikeriak, ateratako ondorioak... Hurbildu eta kontatu zure esperientzia!

12:00-13:30, Jolasak patinen gainean.

12:00, Aurpegia margotzeko eta marrazteko aukera haurrentzat.

13:30, Ikastolako 6garren mailako ikasleak bertsoan.

13:40, Azken mezua.

da plazan. Aurrena, zunba saio bat egingo dute, 11:00etan hasi eta 12:00etara arte. Eta ondoren, patinen gainean arituko dira jolasean. Eta nahi duenak, aurpegia margotu eta marrazteko aukera ere izango du!

Haurren bertsoak, azken mezuaren aurretik

Eta ospakizunari bukaera emateko, beste bi ekitaldi izango dira: aurrena, bertso batzuk eskainiko dituzte, Astigarragako Herri Eskolako 6garren mailako ikasleek; eta ondoren, azken mezua irakurriko diete bertaratuei. Horrekin bukatuko dira gaurko ospakizunak; euskerak, ordea, ez dauka epemugarik. ■



500 astigartarrek baino gehiagok hartu dute parte egitasmoan.

■ UDAL GOBERNUAREN OHARRA

«Zorionak, partehartzaile guztioi!»

Euskararen Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz, Udal Gobernuak zoriondu nahi izan ditu *100 da 100... 200 ordu euskaraz* egitasmoan parte hartu duten guztiak, eta baita aurretik hori lantzen lagundu duten elkarte eta bizilagunak ere: «euskera bultzatzea da, hain zuzen ere, EAJren gobernuaren premisa garrantzitsuenetakoa. Eta gainera, horrelako ekimenak ezinbes-

tekoak dira, gure herrian bizikidetzat sustatzeko. Oso lagun-garriak dira, herritarren arteko harreman sozial berriak sortu eta aurretik zeudenak indartzeko», azaldu dute.

Eta eskerrak eman nahi izan dizkiote, EH Bilduri ere: «berezi eskertu nahi diogu EH Bilduri, Astigarragan euskeraren sustapenean egin duen eta egiten duen lana, eta ildo horretan, *100 da 100...*

200 ordu euskaraz bezalako egitasmoak martxan jartzea ahalbidetzea. EAJk betidanik adierazi du, beste alderdiekin elkarlanean aritzeko borondatea, eta horregatik, bereziki pozten gaitu, euskeraren inguruan lan egiteko, gure ezberdintasunak alde batera uzteko gai izanak».

Eta gonbidatu dituzte herritar guztiak, gaur egingo diren ekintzetan parte hartzera.

■ SAGARDOETXEA

Abenduko zubian, dastaketa berezia: sagardo eta gaztain

Gaurtik abenduaren 11ra, pinua sagar eta kandelaz apaintzeko aukera izango da Sagardoetxean, eta barrikotea ere bai, gaztainekin.

«URTE sasoi honi dagozkion usadio zaharrak berreskuratu» nahi dituzte Sagardoetxean, eta horretarako, plana presatatu dute abenduko zubirako. Gaurtik hilaren 11ra, aukera izango da Gabonetako pinua apaintzeko, sagar eta kandelekin, garai batean bezala, eta

bakoitzak bere desioak idatziz. Astelehen honetan jarri dute zita berezia horretarako eta argiak pizteko, arratsaldeko 18:30etan, eta astigartar guztiak gonbidatu dituzte.

Baina gainerakoan ere, egunero izango da aukera, pinua apaintzeko, eta baita dastake-

ta berezi bat egiteko ere: sagardo berriaren barrikotea egongo da, gaztainekin lagunduta. 11:00etatik 13:30etara, eta 16:00etatik 19:30etara. Biak, pinua apaintzea eta barrikotea, 5 euro dira guztira, laguneko.

Izena emateko: 943 55 05 75 edo info@sagardoetxea.com. ■

■ GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

Sagardo Apurua bihartik, Donostiako Boulevarden

Sagardo berria alan jaitsiko dute 09:00etan, Astigarragatik Donostiara, Urumea ibaitik.

HIRUGARRENEZ ospatuko dute, bihartik datorren ostegunera, Sagardo Apurua. Donostiako Boulevarden egingo dute, eta bertan berreraikiko dute garai bateko sagardotegi baserri bat. Eta bost eguneko festarekin, uzta berria aurkeztuko dute.

Helburua izango da, sagardoaren kultura zabaltzea jendearekiko, eta garai bateko ohitu-

rak eta gaur egungo joerak ere azaltzea.

Sagardo berria, Urumea ibaian beheara

Eta festari hasiera emateko, sagardo berria alan jaitsiko dute bihar, Astigarragatik abiatu eta Donostiaraino, Urumea ibaian beheara. 09:00etan aterako da ala, Astigarragatik. ■